

DENBORAREN ZUBIA

IÑAKI ITURAIN



n a r r a t i b a

DENBORAREN ZUBIA

n a r r a t i b a • 152

erein

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

Orioko udalak lagundutako liburua.

1. argitalpena: 2024ko irailean

Maketazioa:

Erein

© Iñaki Iturain Azpiroz

© EREIN. Donostia 2024

ISBN: 978-84-9109-936-9



L. G.: D 609-2024

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Ulzama

Altzuzate kalea, 51

31620 Huarte, Nafarroa

T 948 332 808

contacto@ulzama.com

www.ulzama.com



Iñaki Iturain Azpiroz

DENBORAREN ZUBIA



IRRATIAREN KATARROA

Arrantzalea lo-seko dago etxean, gaueko ametsen itsasoan murgilduta, gaztea zela kezka bakarra sarea arrainez betetzea zuen garaian dabil; harik eta halako batean, dinbi-danba, etxeko atea indarrez jotzen entzun duen arte, oihu lazgarriekin batera: «*¡Abran, abran la puerta al ejército!*». Artean guztiz esnatu gabe, sumatu du emazteak atea zabaldu diela, bestela ostikoka botako zutenei. Andreak ezer esateko astirik izan baino lehen, etorri zaizkio soldadu armatuak Rafaeli oheraino. Gizona jaikiarazi, zerbait jantzeko agindu eta ezer hartzeko ere astirik eman gabe eraman dute etxetik, bi esku-muturrak elkarri bizkarraldean lotuta.

Kalean, udazken hasi berriko egun garbia izanagatik, oraindik ez du argitu. Gizona espantutik atera gabe, txalupa batean ontziratu eta erriorearen beste alderaino eraman dute eta, lehorreratuta, tren-geltoki ondoan dagoen kamionetaren kajara igo eta eserarazi dute, bi gizon armaturen zaintzapean. Traste zaharra martxan jarri eta burrunba izugarrian egin ditu handik Goiko Gainera arteko bi kilometroak. Kamionetatik jaitsarazi eta ilunpetan txabola zahar baten barrura bota dute. Barru guztia estaltzen duen lasto zikina du ohe berria, etxekoa indarrez kendu diotenetik ordubetera.

Egun batzuk lehenago sartu dira herrian tropak, Nafarroa aldetik, hango erreketek txapel gorriak, soldadu italiarrekin eta moroekin batera. Militarrak herrira iritsi aurreko

azken egunak tentsio handikoak izan dira herritar askoren-
tzat, bereziki Rafael eta Sabina senar-emazteentzat.

—Irrati horrek problema besterik ez digu ekarriko!

—Ez gara ezer txarrik egiten ari, Sabina. Zer nahi duzu
guk egitea?

Andre-gizonak, afaldu berritan mahaiaren bueltan eseri-
ta, pattar piska bat hartzen ari dira. Hauxe izaten dute egu-
neko une lasaiena, egun osoko lanaren nekeari atsedean pixka
bat emateko. Baina egoeraren larriak ez du askorik lagun-
tzen, eta gaur, azken egunetan bezala, Rafaelek eta Sabinak
eztabaida bizian dihardute. Etxeko irratia dute giro mikaz-
tuaren eta haserrearen arrazoia. Sukaldeko paretako egu-
rrezko apala hutsik dago azken egunotan; han egon ohi den
irradi aparailu handia orain leihoaren ondoko mahai gainean
dago. Rafaelek eguerdi puntuan leihoa zabaldu eta, irratia
topean jarrita, aukera ematen die azken egunotan gerra-
ren gaineko azken albistek entzuteko etxepeko plazatxoan
elkartzen diren herritarrei.

—Zer nahiko dut, ba! Irratia ez piztea malapartatu ho-
rirei. Hori gurea da, ez beste inorena.

Aditu omen du erreketek badatozela, gaur Tolosan sar-
tu direla, eta aurki direla Donostian; eta handik hona, bi
salto.

—Kostatuko zaie Donostian sartzea, kostatuko zaienez!

Azpeitian bildu omen dira jeltzale gazteak gudari tal-
deak osatzeko. Haiek ere laster direla Donostian herria de-
fenditzen. Ikusiko dutela militar horiek!

—Rafael, baina, baina, ez al zara konturatzen ez dutela
zer eginik, militarrek askoz arma gehiago daukatela?

—Gaueko bederatziak dira, albisteak entzun behar ditugu.

Rafaelek, hori esatearekin batera, irratia piztu du, eta emisore bila hasi da. Hantxe ibili da gurpiltxoari bueltak eta bueltak ematen, atzera eta aurrera. «*Radio Requeté*» bi hitzak entzunda, berehala aldatu du, bilatzen segitzeko. Halako batean, «*Comunicado de la Unión General de Trabajadores*» entzun duela irudituta, horretantxe utzi du irratia: «*Lamentablemente, Tolosa también ha caído en manos de los fascistas. Pero, trabajadores, no caigamos en el desánimo. San Sebastián se encuentra preparada para hacer frente a los sublevados. La capital de Guipúzcoa será el final del avance de los facciosos, y el comienzo de nuestra victoria. En este momento histórico los trabajadores debemos organizarnos y luchar por nuestras libertades...*»
RRRRRRRRRRRRRRRRRRRR...

—Kaka zaharra!, galdu dugu seinalea berriz ere.

—Jakina, egunetik egunera okerrago entzuten da. Hori badakizu zergatik den, ezta? Horretan ere arma hobeak dauzkatelako, interferentziak haiek nahita eraginak dira.

Rafaelek irratia itzali du.

—Bueltatxo bat ematera noa moila aldera oheratu aurretik, gaugiro ederra dago eta. Laster naiz bueltan.

—Rafael, berriro esango dizut: bihar eguerdian ez dugu irratia piztuko.

Gizonak, eztabaidan haserretu aurretik, kalera atera eta kai aldera bideratu ditu urratsak. Egunaren azken argiak oraintxe ezkutatu dira Mendibeltzen atzean. Kaian Kandido topatu du.

—Rafael, hemen ez zagok gauza onik. Gaur jakin diat hemengo soldaduekin batera, alemanak eta italiarrak ere badabiltzala. Horien kontra jai diagu!

Aspaldiko bere lagunak azaldu dio itsasontzien armadoreak bihar elkartzekoak direla erabaki bat hartzeko; haren ustez, herritik ospa egin beste erremediorik ez dago, eta uste du hiruzpalau egunetan alde egingo dutela Iparraldera; batzuek zalantza omen dute, baina gehienak omen dira herria uzteko asmoa erakutsi dutenak.

—Hik badakik gure baporean tokia badela zuentzat ere. Hitz egin ezak Sabinarekin, eta gauzak prestatzen hasi.

—Oraintxe entzun diat ba irratian Donostian ez direla sartuko inola ere, han eroriko direla faxistak.

Kandidorekin hitz egindakoak, haren ezkortasunak, ez dio zapore onik utzi aho-sabaian; baina piztu duen purutxoak eta hari emandako zupadak aldatu egin dio zaporea ez ezik baita aldartea ere, «Zer arraio, horiek ez dituk gauza Donostian sartzeko; eta txarrenera jota ere, guk ez diagu zertan beldurrik izan, ez gaituk-eta sekula politikan sartu!». Pentsamendu horiek gogoan, erabaki du barkuz Frantziara joateko Kandidok egindako eskaintza ez onartzea, eta andreari horretaz ezertxo ere ez esatea.

Etixeratu eta oheratu egin da, baina kostatu zaio gogotik loak hartzea. Begiak ia bildu gabe jaiki da goizean. Gosaritan Sabinari aurpegi samurrik ikusi gabe joan behar izan du baratzeke lanak egitera.

Aitzurrean ari dela, bisita izan du; udaletxean zinegotzi dagoen bat etorri zaio. Rafaelek aurrea hartu dio: andreak eskatu diola gaur ez pizteko irratirik. Aipamena nahikoa izan

da bisitaria mitin politikoan bezala abiatzeko: «Gerra-egoera latz honetan zuen etxeko irratia herriarena da, eta herritarrok ezinbestekoa dugu behar-beharrezko informazioa jasotzeko. Jabetza pribatuaren gainetik, gerran zer gertatzen ari den jakitea herritarren eskubidea da. Gainera eskatzen zaizuen ez da horrenbesterako ere: eguerdiko albisteak herritarrek etxepetik entzuteko moduan jartzea irratia. Hamar minutu besterik ez dira. Beraz, badakizu, atzo bezala gaur ere piztu irratia behetik denok entzuteko moduan, eta amesgaizto hau bukatzen denean jasoko duzu horren ordaina». Eta tonu mehatxukorrean erantsi du: «Rafael, badakizu zer egin behar duzun!».

Eguerdirako ordu erdi falta dela etxeratu da Rafael. Elizako kanpaiek hamabiak jo baino hamar minutu lehenago, irratia piztu eta gerraren albisteak ematen dituen emisorea bilatzeari ekin dio. Horretan hasi den arte, bezperakoa baino eztabaida are gogorragoa izan du emaztearekin. Sabina tematuta dago, eta behin eta berriro adierazi dio senarrari irratia jendearentzat pizteaz damutuko direla ederki, militarrek herrian sartzen direnean. Emakumeak garbi dauka prezio garestiegia ordainaraziko dietela etxepeko plazatxoan elkartutako herritarren aldarrikapenek, faxisten kontra bota ohi dituzten oihuek, baina batez ere Jaungoikoari egin ohi dizkioten laidoek.

Rafaelek emisorea bilatzen segitzen du, balkoiaren ondoko mahaiaren gainean daukan irratian. Buruan itsasoa du, baporean arrantzara joanda, itsaso zabalean, lehorreko gatazka guztiak urruti, sentitu ohi duen bake betea. Eta horri lotuta, bueltaka dabilkio Kandidok eta beste arrantzale

lagunek herritik ihes egingo dutela eta Kandidoren ontzian lekua dutela oraindik.

Balkoipean elkartzen ari dira, azken asteotan hutsik egin gabe han biltzen diren herritarrak. Halako batean, konektatu du «*Noticario del mediodía, Radio Republicana con el pueblo*», eta bolumena toperaino igo, goizean baratzean komisario politikoak agindu bezala. «*El coronel jefe del puesto de defensa de San Sebastián ha ratificado que en un breve periodo de tiempo van a llegar al puerto de Bilbao los buques procedentes de Inglaterra con las armas prometidas por el gobierno británico, que...*».

Irratiak bezperakoa berretsi du, militarrek ez direla inoiz Donostian sartuko eta oso denbora gutxian gerrak alderantzizko norabidea hartuko duela eta aste gutxian bukatua izango dela. Albistegia amaitu eta gero, aldarrien eta ereserkien txanda iritsi da. Irratiak bere lana egiten duen bitartean, Rafaelek, sukaldeko leihoaren errezelen atzean erdi ezkutatuta, kalera begiratu du, etxearen aurrean pilotutako taldeari. Ez dira asko. Ondorioztatu du azken egunotan jende gutxiago ari dela elkartzen, baina builosoenak hantxe ikusi ditu.

Irratiak eta beheko plazan dauden herritarrek bat egin dute albisteen osteko azken oihuetan: «*¡Viva la República! ¡Viva los trabajadores! ¡Muerte a los golpistas traidores! ¡No pasarán!*». Eta batzuk kantari hasi dira: «*¡Si supieran los curas y frailes la paliza que van a llevar, subirían al coro cantando: ¡Libertad, libertad, libertad!*».

Albistegia amaitu eta, aldamenetik Sabina irratia behin-berri itzali dezala adieraziz imintzioka ari zaiola, Rafaelek

behingoz tramankulua itzali duenean, beste oihu bat entzun du behetik: «Gora Euzkadi askatuta!». Rafaelek ahopetik erantzun dio «Gora!», aitaren egitearekin batera.

Atzoko afalondoko giroa ez zen goxoa izan, eta gaurko bazkarikoa are mikatzagoa izan dute. Biharamunean ez pizteko irratia, bestela hartu eta putzura botako duela. «Zuk ikusi!».

—Baina, Sabina, ez al zara konturatzen nik zuk baino gehiago sufritzen dudala gizatxar horiek elizaren, apaizen eta Jaungoikoaren kontra oihuka hasten direnean?

Orduantxe aitortu dio andreari udaletxeko zinegotzi ez-kertiarrak egindako mehatxuarena. «Irratia herriarena da!», horixe bota diola, eta ez badute pizten, atxilotu egingo dute-la. «Horixe esan dit zerri horrek!».

—A, bai! Ba, esaiozu hartu dezala irratia eta emateko herriari, eta egiteko nahi dutena harekin.

Rafael ustekabeen hartu du andrearen proposamenak, berari sekula burutik pasatu ere egin gabeko ideiak. Irratia aita zenak ekarri zuen Irlandatik, bakailaotan zebiltzala denborale handiko batean arrantza-ontzia hango portu batean babestu zenean. «Hara, pena pixka bat emango dit, baina ez da ideia txarra», esan du bere artean.

—Zuk ez didazu askorik esan, baina jakin dut Kandi-dok gonbita egin dizula ere. Eta? Zer? Zer egin behar dugu?

Galderak ez du erantzunik izan. Ondoko bi egunetan arrapaladan etorri da dena. Donostiatik ihesi datozen soldaduen bidez jakin dute han ere sartu direla tropak, eta laster direla herrian. Azken bi egunotan, trena soldaduz eta jendez gainezka pasatu da herritik Bilbo aldera. Miliziano

asturiarrek herriko bi zubiak eraitsi dituzte dinamitaz, erriorearen gainekoa eta trenbidearena. Ihesbideak ixten ari zaizkie oraindik herrian geratzen direnei. Itsasoan daukate aukera eta esperantza bakarra. Bapore batzuk dagoeneko joanak dira Frantzia aldera. Kandidorena bihar da itsasoratzekoa.

Azken bi egunotan irratiak ez du konektatu lehengo emisorearekin, betiko frekuentzian ez da ezer entzuten. Rafaelen ahaleginak, halako batean, gaur lortu du irratian berriz zerbait jasotzea. Kantua entzun du, oraintxe jabetu da zein den: *«Por Dios, por la patria y el rey, lucharon nuestros padres, por Dios, por la patria y el rey, lucharemos nosotros también...»*. Karlisten ereserkiaren ondoren, gerraren gaineko albistegia etorri da: *«Radio Requeté con ustedes. Ayer por la mañana las tropas liberadoras del glorioso ejército español entraron en las calles de San Sebastián... La población recibió con gran entusiasmo y aclamador júbilo la liberación de la ciudad...»*. Horda gorri odoltsuek ihes egin dutela, eta zintzo jokatu dutenek ez dutela zertan beldurrik izan Espainia berrian.

Ez du barrenik izan albistegia entzuten segitzeko. Esker-rak eman dizkio Jaungoikoari andreak ez duelako entzun irratiak esan duena; Sabina baldea buru gainean jarrita, labaderora joana da, arropa garbitzera. Irratia itzali eta kalera atera da Rafael. Oinek moila aldera bideratu dute. Mugimendu handia sumatu du han, eta urduritasuna. Bi bapore geratzen dira kaian. Kandidorena da haietako bat. Jendea ari da itsasontzietan toki egin nahian. Ez dute erraza, bada-eta ontziaren kubiertan maleta eta trastea.

Azken asteotan etxepeko plazan egon diren batzuk ikusi ditu baporeotan sartzen. Alkatea eta zinegotzi ia denak joan dira, baita irratia piztera behartzen zuen komisarioa ere.

Portutik elizara jo du Rafaelek. Hango isiltasunean belauniko jarrita, otoitz egin dio Jainkoari, inoiz ez bezalako kemenez erregutu dio bakearen alde, ataka estu honetatik ateratzeko. Kanpora baino lehen, apaiza etorri zaio.

—Rafael, Rafael, zuek zaudete lasai, Jaungoikoak ez zaituzte bazterrean utziko, ez zu eta ez Sabina, kristau zintzoak zarete biok, eta halaxe dira aurki herrian sartuko diren soldaduak ere. Jainkoak babestuko gaitu harengan sinesten dugunok. Zoaz Jaunaren bakean!

Apaizaren hitz lasaigarriekin etxeratu da, azken orduotako gorabeherek eman dioten aztoramendua baretuta. Sabina etxeratu denean, irratia diskurtsoko hitzak azaldu dizkio Rafaelek, eta apaizarenak, eta ez dutela zertan kezkatu. Andreak, berriz, gobada-harriaren bueltan elkartutako emakumeei entzundakoak, senarrari: herritarren erdiek alde egin dutela herritik, haien artean zeudela etxepean irratia entzutera biltzen ziren gorri guztiak, ez dela bakar bat ere geratu, tropak sartzear direla herrian Mendizorrotx aldetik, eta ahizpak gaur arratsaldean bertan ekarriko diola josten ari den bandera nazionala, eta tropak sartu aurretik zabaldu behar dutela balkoian.

Bazkal ordua, aurreko egunetan ez bezala, isilik eman dute senar-emazteek, irratia bezain isilik. Apenas jan duten ezer, ez bata ez besteak. Rafael etzan egin da, platerekoa ia ukitu ere egin gabe utzita, lo-kuluxkak lasaitu eta on egingo diolakoan. Ez da gauza izan betazalak ixteko. Kandidoren

baporea arratsaldean itsasoratzekoa da. Hura hartu edo ez, zalantza horixe dabilkio buruan bueltaka, jendearen beldur-
rrak eta susmo txarrak batetik eta, bestetik, apaizaren hitz
lasaigarriak eta aurki herrian izango diren militarrek ere
kristauak izatea. Borrokan talka bizian biak. Azkenean bai-
kortasuna nagusituta, ohetik jaiki eta, andreari lasaitzeko
adorezko hitzak esanda, moilara joan da Kandidori eskerrak
eman, agur esan eta atzerriko bizitoki berrian zortea izan
dezan opa egitera. Agurrean, besarkada estuan batu dira bi
adiskideak, masailean behera irristatzen hasitako malkoak
elkarri ezkutatzeko.

Azken baporea herritik urrunduta, egoera berrira ego-
kitzea beste aukerarik ez dute. Etxeratuta, Sabinak bande-
ra nazionala erakutsi dio Rafaeli, minutu batzuk lehenago
ahizpa Kaxildak ekarria. Andrea trapua eskuetan duela
balkoira atera da, baina berriro bildu behar izan du, Men-
dizorrotzetik behera gerra-frontetik ihesi datozen azken
gudariak korrika pasatu baitira balkoi azpitik kai aldera.
Han, milizianoek dinamitaz hankaz gora botatako zubi
birrindutik gertu, errioaren beste aldera eramango dituz-
ten txalupak dauzkate zain, handik Bizkaia aldera ihesean
segitzeko.

Azken gudarien korrikaldiaren zalapartak erabateko
isiltasunari tokia utzi dionean zabaldu du Sabinak laster
herrian sartuko diren soldaduen bandera balkoian. Ondo-
ren elizara jo dute andre-gizonek, errosariora. Etxetik hara
bitarteko ibilaldiak kanposantuko isiltasuna gogorarazi dio
Rafaeli. Elizan elkartu dira ihes egin ez duten ia denak. Gaur
inoiz baino beharrezkoago dutela, gogorarazi die apaizak

elizarrei, bakearen aldeko otoitza. Errosariotik irtenda, zimitoriotik behera abiatu direnean, aspaldi hitzik egin ez dien herritar bat hurbildu zaio bikoteari: «Zer, ahotsik gabe geratu al da irratia?».

Amorrotuta etxeratu dira, eta kezkatuta oheratu. Biharamunean, goizean goiz sartu dira aurreneko soldaduak herrian. Sukaldeko leihotik ikusi dute nola bideratu diren segituan udaletxera, eta nola zabaldu duten bandera erraldoi bana hango balkoian eta herriko plazako posterik altuenetik.

Joan-etorri askoko egunak izan dira ondokoak. Sartu berriek informazioa nahi dute, herria utzi dutenen gainekoa. Udaletxetik pasatu behar izan dute Rafaelek eta Sabinak, gainerako herritarrek bezala. Erreketeak eta soldaduak herrian sartu eta hiru egunera jakin dute herritarrek nor duten alkate berria. Aguazila ibili da, danborraz lagunduta, kalez kale bandoa jotzen. Karlisten Zirkuluko buru egiten duen adineko gizonkote bat izango da aurrerantzean herriko agintaria: Juan Carlos Irigoyen. Aginte militarra, berriz, Abarzuza herri nafarreko erreketek txapel gorriak izango du, Epifanio Echeverriak.

Gerra urrundu egin da herritik. Etorri aurreko azken egunotan tentsio handia bizi izan dute herritarrek; baina orain lasai antzean ibili dira, harik eta gaur jakin duten arte goiz-albarekin batera Teodoro eraman dutela etxetik, erriorearen beste aldean zain zeukaten kamioneta batean. Horixe izan dute Rafaelek eta Sabinak bazkariko gai bakarra. Zarauzko falangistak omen dira Teodoro etxetik atera eta eraman dutenak.

—Zuk ba al zenekien Faustina haurdun dagoela?

Emazteak baietz, ikusi duela emakume gajo hura, haur txiki bat tititik zintzilik eta beste bat sabelean, haien aita eraman dutelako, negar orroka.

—Sabina, alkatea joan da Zarauzko komandantearengana Teodoro errugabea dela esatera, ez dela ezertan sartu eta askatzeko eskatzera.

—Horixe da, ba, txarrena: ezeren errurik gabekoa eraman dutela.

Politikaren saltsan zebiltzanek, berriz, azkar egin dutela hanka, irratiak berotuta etxepean oihu egiten zuten komunistak haiek denek.

Andreak egindako irratiaren aipamenak isiltasuna ekarri du sukaldara. Rafaelek irratiari begira ikusi du emaztea, eta haren aurpegian nahastuta sumatu ditu beldurra eta amorrua. Bat-batean, sentitu du bere etorkizun hurbilak ere aldatuta handia nozitu dezakeela, irratitik entzuten zituzten diskurtso politikoek egun batetik bestera izan dutena bezainbestekoa; eta sentimendu ezkorrak ekarri dion egonezina baretzeko modu bakarra loak dakarkion ihesa duelakoan, oheratu egin da.

* * *

Horixe izan du Rafaelek azken gaua etxeko ohean. Orain Goiko Gaineko txabolako lasto zikinaren gainean dago, soldaduek etxetik atera eta kamioneta zahar zaratatsuan haraino eramanda.

Senarra etxetik eraman bezain laster, Sabinak korrika bizian ahizpa Kaxildaren etxera jo du. Hura esnatu eta

gertatutakoaz jabearazi du. Janzteko ere ia denborarik hartu gabe, adostu dute Epifanio Echeverriarenera joatea, gertatu behar ez dena saihesteko norbait gai baldin bada, hura delakoan: herriko komandante militarra.

Harenera iritsita, hamar minutuz aritu dira ateko aldaba jo eta jo, halako batean etxeko neskameak ireki dien arte. Eztabaida bizian aritu dira: Echeverria jaunarekin hitz egin nahi dutela, lo dagoela, mesedez esnatzeko, horren goiz esnatuta haserretu egingo dela, senarra eraman dutela eta beldur direla hilko ote duten... Horrelaxe aritu dira, harik eta neskameak bi emakumeak ate ondoan lagata, agintaria esnatzera joan den arte. Hamar minutura agertu zaie militarra. «*Mis queridas señoras*», esan die. Haren aginpidea herrian bukatzen dela, eta «*Si se lo han llevado, por algo será, y ustedes seguramente lo sabrán mejor que yo*». Nolanahi ere Zarautzen dagoela eskualdeko aginte militarra, eta eguna zabaldu arte lasai lo egiten uzteko...

—Sabina, hoa etxera, ni arduratuko naun, alkatearen etxera joango naun. Izan konfiantza nigan.

Sabinak badaki Kaxilda neskame aritu zela alkatearen etxean bost urtez; nagusia gizon ona zuela esana zion hamaika aldiz, oso kristaua. Burutik pasatu zaio, benetan hala baldin bada, alkateak ezingo duela onartu Rafaelen oraingo egoera.

Kaxildak azkar egin ditu militarren etxetik alkatearenera artekoak. Han ere itxoin behar izan du puska batean. Neskamea laguna du eta honek keinu konplize batez etxean sartzen utzi dio, eta larrialdiaren berri eman alkateari. Gizon jaiki berriak haserre hartu du garai batean neskame izan zuen emakumea.

—Hara, Kaxilda, nik ez zekinat zergatik eraman duten Rafael, baina susmoa bazeukanat. Hik ere badakin Rafaelen etxean irratia daukatela. Uste dinat huraxe dela herrian dagoen bakarra, eta hik badakin zer gertatzen zen nafarrak herrian sartu aurreko azken asteetan: herriko komunistak elkartzen zitunan egunero eguerdian Rafaelen etxe aurrean...

—Haien irratitik eguerdiko albisteak entzuteko, besterik ez.

—Eta nola bukatzen zituzten hango bilerak? Komunisten kantuak kantatzen, *Internazionale* eta Elizaren kontrako abestiak, batere errespeturik gabekoak, Jaungoikoa iraintzeko kantu eta hitz zatar mingarriak.

—Baina Rafaelek ez zuen parte hartzen...

Bazekiela baina irratia haien etxeko balkoitik berotzen zituela komunistak. «Gainera, niri esan zidatenan Rafael ere, ukabila altxatuta, besteekin batera aritzen zela komunisten aldeko aldarriak oihukatzen. Eta orain zer?». Gorri haiek denek ihes egin dutela Frantziara, azkar asko, baporean. Tropa nazionalak bazetozela sumatu orduko, ez zela alerik ere geratu herrian. «Baina Rafael inozo horrek zer egingo eta aurrena komunistei bazka eman eta gero, gainera, herrian geratu!».

—Jauna, zuk ondo dakizu Rafael ez dela komunistak, eta irratia behartuta pizten ziela gorri horiei...

—Rafael gizon ona dun, bazekinat, baina guk orain ezin dinagu hemendik besterik egin. Gure esku dagoen bakarra errezatzea dun, Jaungoikoari eskatzea militarrek gogoan izan dezatela gizon horren delitu bakarra izan dela etxean irratia edukitzea...

—Baina hori ez da arrazoia inor hiltzeko —egin dio Kaxildak oihu alkateari, bere onetik aterata.

Momentu horretan sartu da apaiza ere alkatearen etxean.

—Ezin dugu utzi Rafael hil dezaten. Entzun ditut zuen hitzak. Guri bioi zerbait egitea tokatzen zaigu. Errezatu, nik egingo dut, herritarrekin batera elizan. Alkate jauna, zuri mugitzea tokatzen zaizu, komandantearekin hitz egin behar duzu, eta harekin batera Goiko Gaineko kanpamentura joan, Rafael eta Teodoro ere askatu ditzaten.

Kaxildaren eta apaizaren artean lortu dute alkatea konbentzitzea. Handik alde banatara abiatu dira hirurak: apaiza elizara, alkatea komandantearen etxera, eta Kaxilda ahizpa Sabinarenera.

Kaxildak haren etxeko atarian topatu du ahizpa. Ez dio galdetu beharrik izan, segituan aitortu dio Sabinak berak esan diola apaizari alkatearen etxera joateko. «Ez naun egon hi etorri zain. Eta orain ere ez naun geldirik egongo senarra noiz bueltatuko. Nahi badun, etorri, ni banoan goiko kanpamendura».

—Zer daraman zakuto horretan?

—Arropa pixka bat hartu zionat, han goian gauean hotz egingo din, eta ogitarteko bat eta... Hara, goazen!

Bi ahizpak ziztu bizian abiatu dira eguna argitu berri-tan, arrantzaleen kofradia ondoko arranpara. Hantxe daude txalupak, zubia bota zutenetik jendea erriorearen alde batetik bestera pasatzeko jarritako arraun-ontziak. Berehala beste aldera eramateko eskatu diote txalupari gazteari, Martini. Emakume haien aurpegia ikusita, mutila berehala jabetu da egoera larria bizi dutela, baina ez da ausartu ezer galdetzen. Bisajea zuri-zuri dutela doaz txopako tostan eserita. Erriorearen

alde batetik besterainoko ehun eta berrogeita hamar metroko bidea eternoa egin zaie. Bost minutu ez dira igaro Martinek, bi arraunean eta boga azkarrean, batela arranpatik beste aldeko eskaileretara arrimatu duen arte.

Txalupariak garbi adierazi die emakumeei ez zapaltzeko eskaileretako berdea, han itsatsita dagoen goroldioa. Baina ahizpak ez daude ezer aditzeko ere. Sabina ia hankaz gora erori da. Kaxildak atzetik heldu dio. Hala ere, binaka igo dituzte moilaraino falta diren eskailera-mailak. «Joan lasai, erori gabe» izan dira mutil gaztearen agur-hitzak. Berriro ere ez diote kasurik egin. Korrika ikusi ditu biak, Zarautza daraman bidezidorraren lehenengo maldari ekiten.

Martinek, berriro kofradia aldera etorri eta, lehorrerata, moilan topatu duen aurrenekoari galdetu dio ea zer gertatu den herrian.

—Ez al dakizu? Kalean beste konturik ez dabil, Rafael atxilotuta eraman dute Goiko Gainera.

Orduantxe ulertu du gazteak zerk ekarria zen bi emakumeen larria. Orain badaki zergatik eta nora doazen horren presaka. «Ematen zuen deabrua zutela atzetik segika, ez naiz harritzen, baina ez zihoazen infernutik ihesi, beharbada kontrakoa: infernua hor goian topatuko dute!».

Bi ahizpak lehertuta ailegatu dira muinoaren tontorrera, arnasestuka, izerdi patsetan eta bihotza lehertzean. Gaina hartuta, atzean herria eta ibaia dituztela, aurrean agertu zaie kanpamendu militarra. Tartetxo bat hartu dute arnasa baretu arte. Soinekoak eta ileak pixka bat txukunduta, aurrera egin dute.

—*Alto!* —Kanpamenduaren atarian topatu duten soldadu gazteak—. *¿A dónde van ustedes?*

Kaxildak hartu du hitza. Kanpamenduko koronel nagusia-
rekin hitz egin nahi dutela. Ea zein diren eta zer nahi duten,
soldaduak. Goizaldean atxilo hartu dutela koinatua. Gaizki-
ulertua izango zela. Gizon gizajoa errugabea dela eta non dagoen
jakin nahi dutela. Egoteko han zain. Berehala itzuliko dela.

Soldadua abiatu denean, begiratua eman diote kanpa-
menduari. Olana lodiko denden gainetik, basoaren ondoko
zelaian, soldadu batzuk ikusi dituzte.

—Hara, hura Rafael dun. Han, ez al dun ikusten? —Sa-
binak— Goazen. —Eta korrika abiatu da, ustez Rafael den gi-
zonarengana, atzetik ahizpa doakiola.

Hurbildu ahala, berretsi du andreak senarra dela, bai,
fusil bana duten hiru soldaduz inguratuta dagoen gizona.
Baina ez du ulertzen egoera, zertan ari da! Pikatxoia bi es-
kuekin helduta lurra jotzen dihardu, zuloa egiten. Rafael
dagoen lekutik metro gutxira lur pilaketa bat ikusi du, eta
haren gainean egurrezko gurutze bat. Egun batzuk lehenago
etxetik atera zuten gizona etorri zaio gogora, Teodoro. Zer
gertatzen ari den ulertzen hasi da. «*Rafael!*», atera zaio orroa
barru-barrutik. Senarrak dena azaldu dio burua altxatuta es-
kaini dion begiradarekin.

Soldaduek aurrera ez egiteko eman dizkioten aginduei
eta haien oihuei batere kasurik egin gabe, Rafaelengana salto
egin eta besarkatu egin du Sabinak. Soldaduei ederki kostat-
u zaie senar-emazteen besarkada puskatzea.

—*¿Señora, está usted loca o qué?*

—*¿Quién manda aquí? Quiero hablar con él.* —Eta sena-
rrari begiratuta—: Zu zaude hemen lasai, laster naiz zurekin,
eta etxera joango gara elkarrekin.

Lehengoko soldaduak eraman du kanpamenduko buru egiten duen koronelaren kanpaina-dendara. Sabina negar batean hasi zaio, hitza koronelaren aurretik hartuz. «Jauna, uztazu nire senarra libre. Utzi etxera nirekin eramaten. Ez dio inori ezer txarrik egin gizajoak!».

—*Su marido es un rojo comunista peligroso.*

Ezetz ba, Jainkoarren, senarra ez dela komunista. Nola ba! Iluntzero errezatzen dutela errosarioa, eta igandetan mezetara eta komulgatzera..., galdetzeko Don Antoniori. Militarra berean tinko. Irratia jartzen zuela jendilaje horrentzat. Sabinak, berriz, behartu egiten zituztela. Alkatearen agiri sinatua daukala eta erakutsi egin dio. Militarrek papera baztertu eta sututa esan dio zergatik barkatu behar ote dion propagandista gorri bati, oso gauza larria dela Espainia puskatzearen alde jardutea, eta komunisten odolkeriak babestea zer esanik ez! Barkaezina guztiz! «*¡Soldados, llévensela!*».

Soldaduek arrastaka atera behar izan dute andrea. Haiek horretan ari direla, Kaxildak aprobetxatu egin du haraino hurbildu eta kanpaina-denda handian sartzeko. Soldadu bategi Sabina utzi eta Kaxildari heltzen hasi denean, atera zaio honi, patxada behartuan: «*¡Señor coronel, tengo una proposición para usted!*».

Koronelak, zalantza une baten ondoren, Sabina eramateko behingoz eta Kaxildari jakin-minez: «*¡Pase, señorita, dígame! ¿Qué se le ofrece?*».

Sabina kanpoan geratu da, lurrean eserita, kanpaina-dendaren ateari begira. Hitz hotsa iristen zaio barrutik, baina ez du konbertsazioaren haria deszifratzea lortzen. Hitz

solte batzuk besterik ez. Ordu laurden luze jardun dute Kaxildak eta koronelak hizketan. Halako batean koronela kanpora atera eta, pentsakor, esan du, barrura begira: «*¡Pues va a tener usted razón, venga, vamos!*». Txapel militarra jantzi eta baso ondoko zelaira bideratu ditu urratsak, atzetik Kaxilda duela. Sabina lurretik altxatu eta besotik heldu dio ahizpari. «*Zer esan dion?*».

Rafael dagoen lekuraino iritsi dira eta koronelak egin dio zaunka: «*Rafael, deje usted la azada a un lado*». Hemendik aurrera beste zeregin bat daukala herrian. Eguneko informazioa eman behar diola herriko jende zintzoari, irratia piztuta, lehenago gaiztoei bezala orain zintzoei. Espainiar prestuekin kolaboratzen duen neurrian gordeko duela bizia. Deskuiduan, berriz, desbideratuz gero, enteratuko dela eta orduan Maria santisimak ere ez duela partaren kontra hiltzetik libratuko. «*¡Ahora recoja sus cosas; pueden marcharse!*».

Oinez abiatu dira Rafael, Sabina eta Kaxilda, belardian barrena. Halako batean, gizona ziplo erori da aurreraka. Andrea makurtu eta altxatzen lagundu dio. Berehala konturatu da Rafaellek dardara nabarmena duela bi eskuetan. Horretaz ohartuta, gerritik heldu dio kanpamendutik behingoz ateratzeko. Oihu batek geldiarazi ditu, eta izua bi emakumeei ere ekarri: «*Alto, esperen, la camioneta les bajará hasta el río*».

Agudo jaitsi dute traste zaharrear erriorainoko aldapa behera. Errio ertzean topatu dute Martin, haien zain balego bezala. Rafaeli ederki kostatu zaio ibilgailutik jaitsi eta txalupan sartzea.

Eguerdia gertu, eguzkiak ederki goxatzen du giroa, baina Rafaelen eskuek dardara bizian segitzen dute, oraindik ez du hitz erdirik ere esan. Andreak lagunduta ontziratu da, begirada noraezean galdua duela. Aurrean eseri dira andre-gizonak, elkarren ondo-ondoan, brankan, andreak gizonaren eskuak bere eskuetan hartuta.

—Rafael oraindik ez dun berotu, orain etxean emaiion salda beroa eta horrela etorriko dun bere onera —xuxurlatu dio Kaxildak Sabinari, ahizparen aldartea goxatzeko.

Begirada errioko uretan galduta daukan senarrak ez entzuteko moduan erantzun dio Sabinak ahizpari, ahots ia isilean: «Hor goian egin diotenak ekarri dion dardara hori ez diten sendatuko ez mila saldak ezta botikarik onenak ere». Hitzik esan gabe borobildu du esaldia, esku-ahurrak otoitzeko bezala jarrita, zerura begiratu.

Martin txalupa-mutila arraunean hasi eta, ontzia errioren beste alderantz abiatu denean, Sabinak, bere azken hitzek ahizpa gazteari sortu dioten asaldura leuntzeko eta goian zer gertatu den ulertzeko, galdera egin dio Kaxildari.

—Nola arraio lortu dun koronela konbentzitzea?

Bi ahizpek, elkarri begira, poza malkoz partekatuz ospatu dute gaurko garaipena, aspaldiko bakarra; Rafaelen gogoia oraindik Goiko Gaineko infernua dela. Kaxildak, ondoren, azaldu dio ahizpari zer proposatu dion koronelari, eta hark, kostata izan bada ere, azkenean onartu egin diola.

—Gazteegia naun alargun baten ahizpa izateko, Sabina. —Eta irribarrea ezpainetan—: Lehengoan Ramonirekin hitz egin ninan. Haien aitarena kontatu zidanen, Julianena.

—Zer gertatu zaio, ba, Juliani?

—Orain hauekin zabilen gerran, nahiz eta gerraren hasieran gudariekin ibili zen.

Sabinari jakin-mina sortu zaio jakiteko zer arraio gertatu ote zitzaion Juliani, aurrena gerrako alde batean eta orain bestean aritzeko. Arreta osoa eman dio ahizpa gazteari, eta entzun dio Julian gudariekin joan zela eta erreketeen preso erori zela eta, ordurako tiratzaile onaren fama irabazia zue-
nez, kapitain nafar batek esan omen zion hain tiratzaile ona baldin bazen, aukera bakarra zuela orain bizirik ateratzeko: lehen erreketeei bezala orain gorriei egitea tiroak.

—Sabina, hik ederki dakin Julianek zer erabaki zuen, bizirik segitzen din-eta.

Sabinak musua okertu du.

—Neska, neska, negua ere bazatorren eta, laster harapatuko din katarroa irratiak ere, eta hori nahikoa izango dun ahotsik gabe gelditzeko.